

ZAHARREN EGOITZA

'Eguneko zentroa'k 24 pertsona hartuko ditu aurrerantzean

Eguna bertan pasa eta lotara etxera joaten direnentzako da.



Eguerdi pasa Sandiusterrri parean, patxaran.

Zaharren egoitzako beheko solairuan Eguneko Zentroa dago. Helduak (beren kabuz moldatzen direnak nahiz ezinduak), eguna bertan pasa, eta gauean etxera joaten dira lotara. Gaur egun, 16 lagun joaten dira egunero, baina laster 24 izango dira.

ASTE OSOAN

Astelehenetik ostiralera dago

martxan eguneko zentroa, baina orain, zazpi egunetan zabalduko dute; astelehenetik igandera alegia. Goizeko zortzietan hasi eta gaueko zortziak arte dago martxan, jendea eraman eta ekartzeko auto eta guzti.

ALDAKETA

Eskaerak gora egin du, eta bere kabuz moldatu ezin duten helduak gero eta gehiago dira gai-

nera. Honi aurre egiteko langile gehiago hartu eta jende gehiagorentzako tokia jartzan ari dira.

HITZARMENA

Ongintzan onartua da jadanik zerbitzua zabaltzea. Diputazioa ere ados da eta laster sinatuko dute hitzarmena; dirua Diputazioak Udalak eta erabiltzaileek jarri ohi dute. □

Denda batzuk Pilariketan lan egiteko bilera deitu dute

Datorren asteazkenean izango da 20:15etan Biterin.

HERNANIKO udaletxeko LABeko komiteak eta dendari batzuk, Pilarika egunean (Urriak 12) lan egiteko deia luzatu dute prentsa ohar baten bidez. Oharrak dioenez "Guardia Civilaren eta Hispanidadearen festa egiten dute batzuk, baina, Euskal

Herriaren ukapenaren ikur direlako ez ditugu jai egun bezala onartzen" eta desobediendiaren bidea aldarrikatzen dute.

Deia aldarrikapenekin bat egiten duten guztiei luzatzen diete "bakoitzari dagokion alorrean praktikan jartzeko". □

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA
00-01 IKASTURTEA:
Maila guztiak. Ikastaro bereziak
Erritmoak
Goizez, arratsaldez eta gauez.
Matrikulaldia
Irailaren 22ra arte.
Galde ezazu euskaltegian (Biteri Kultur Etxean)!
☎ 943 331896
e-mail: euskaltegi@hernani.net
HERNANIKO UDALA

FUTBOL LIGA

Hernanik eta Zallak 0-0 enpatatu zuten atzo

3.MAILAKO hernaniko taldeak Bizkaiaiko Zalla herrian jokatu zuen partidua. Hernani-

arrek bigarren puntua eskuratu zuten, lehen partiduan ere berdinketa lortu baitzuten □

Jose Ramon Chica harrika erasotu zuten herenegun

Ezezagun batzuk harrika ekin zioten etxera zijoala. JOSE Ramon Chica PSE-EEko zinegotzia harrika erasotu zuten Antzolan herenegun. Chicak inguruko janari denda batean gorde behar izan salaketa jarri du. □

'AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK'

Gaur zortzietan hasiko dira bilerak udaletxean

Hezkuntza eta kulturako sektoreak bilduko dira gaur.

HERNANIKO udalak aurrekontuak egiteko sistema berria jarri du martxan. Sektoreka, herritarrekin bildu eta haien proposamenetik ateratakoa izango da plenora joango den aurrekontu proiektua. Herritarrekin egingo diren bilerak hiru fasetan egingo dira: lehengoan herritarrei udal funtzionamendua esplikatuko

zaie; bigarrean herritarren proposamenak etorriko dira; eta hirugarrenean batzarra egingo da, erabakiak hartzeko.

Aste honetan lehen faseko bilerak egingo dira. Gaur, hezkuntza eta kultura sektoreak; asteartean emakumeak eta auzokideak; eta asteazkenean kirola eta euskara. Denak zortzietan. □

Angel Pikabea ereñotzuarra atxilotu dute

Herenegun arratsaldean Saran atxilotu zuten.

ANGEL Pikabea ereñotzuarra atxilotu zuten herenegun Lapurdin egindako ETaren kontrako operazioan. Berare-

kin batera beste zazpi atxilotu ere izan ziren. Polizia iturrien arabera ETA barruan ardura ezberdinak dituzte guztiak. □

HERNANI HIZKUNTZAK
(INGELESA)
MATRIKULA IREKITA
☎ 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1
20.120 HERNANI
ZORIONAK !
Haritz, Ibai, Javi, Jon, Amaia,
Eluska, Laura, Andoni eta Xabi
CAMBRIDGE UNIVERSITY
FIRST aprobatazeagatik.

PARROKIKO ROPEROA

Urte askotako lan isila premian dagoena jazten

Hemezortzi emakume aritzen dira arropa bildu, garbitu, plantxatu eta banatzen.



Bi lagun arropa aukeratzen parrokoiko roperoan joan den asteazken arratsaldean.

PARROKIKO roperoa, orain dagoen lekuan eta moduan, duela bost urtetik honuntza ari da lanean, eliza berritu zutenetik. Berez, ordea, zerbitzua zaharragoa da. Don Jose Algarresta parrokoaren garaian egiten zen halako zerbitzu, eta Don Eusebio apaiz zela ere bai.

JASO, GARBITU, JOSI...

Hori dena eta gehiago egiten dute hemezortzi emakumeok, lekua hartarako prestatua daukate-eta.

ARROPAZ GAINEZKA

"Jendeak arropa asko ekartzen du, eta ona gainera!" zion emakumeetako batek. Kazadorak, galtza bakeroak, panaz-

koak, oinetako berri-berriak... edozein arropa dendari inbidia gutxi izateko moduan bai.

ETIKETAKO ARROPA

Jende asko eta era guztieta-koa joaten da arropa bila, baina, urte gutxitan behartsuen esijentziak ere aldatu egin omen dira. Lehen, zegoena hartu eta



Roperoa arropaz beteta

kitto; orain, edozerekin konforme ez eta markako arropa nahi, berriz. "Hor ikusten da nola bizi garen" zioen batek.

AFRIKARA

Hernanin bertan arropa asko banatzen dute -badira komuniorako parrokoiko roperoan jantzi direnak-, baina, asko sobratzen da. Hori Afrikara bidaltzen dute. Iaz 50 arropa kaxa bidali zituzten Ruandara. Aurten ere hasi dira prestatzen.

Roperoko emakumeek eskertuko lukete arropa bere ordutegian uztea: Asteartean 09:30-12:00 eta asteazkenetan 16:00-18:00. Parrokiko atea zabalik egoten da eta arropa barruan, goiko gelan utzi

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** Kronikako buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Santa Barbarako iturria.

■ **Asmatu dutenak:** Garikoitz Izagirre, Dennis Socondo, Salazar, Marian Apezetxea, Joxe M^a Zelarain, Putre.
(Saria gehien asmatzen dituenak eramango du)

HITZ BITAN

MAHAI TENISA.

Hernaniko mahai teniseko taldeak hasi ditu entrenamenduak. Iaz bezala astelehen eta asteazkenetan 5:15etik 8:15etara eta ostiraletan 6:15etatik 8:15etara elkartzeko dira kiroldegian. 2.maila nazionalan daude eta aurtengo helburua lehenengo mailara igotzea dute. □

AGENDA

ERAKUSKETAK

Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udaletxean bertan,
12:00-14:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren
Kuadroko.xema taberan.

Argazki erakusketa
didaktikoa
Tolareak antolatuta
Biteri kultur etxean

Alderdi Eguna

DATORREN igandean ospatuko da Salburuako zelaietan Eusko Alderdi Jeltzalearen Alderdi Eguna. Urtero, milaka jeltzaleren topalekua da Gasteizeko zita.

AUTOBUSA

Hernaniko EAJ autobusa aterako du Salburuara joateko. Izena emateko deitu datorren ostegunean arratsaldekoko sei-etatik aurrera honako telefono honetara:

☎ 943-550212

KIROL EMAITZAK

Osteguna

■ **PELOTA**
Profesionalak Aranda de Duero
Esnal-Mendia 22
Zabala-Oregi 16

Ostirala

■ **PELOTA**
Profesionalak Mutrikun.
Gipuzkoako opena
Esnal-Laskurain 22

Larunbata

■ **PELOTA**
Herriarteko Txapelketa:
Yubero-Alvarezek 22
Arraztoa-Arraztoak 18
Zabala-Mendizabalek 20
Jaurena- Eskudero 22
Erroizena- Zabalak 17
Leiza-Baleztenak 22

FUTBOLA

Gorengoen mailakoak:
Errenteria 3 **Hernani 2**
Gazteen liga nazionala:
Hernani 2 Errealak 3
Gazteen bigarren maila:
Lasarte 5 **Hernani 4**

FUTBOLA

3.maila

Zalla Hernani

ERRUGBIA

Emakumezko nagusiak:
Hernani 0 Baiona 40
Jubenilak:
Hernani 49 Baiona 0
Kadeteak:
Hernani 10 Baiona 20, Atletiko 15
Baiona 20, **Hernani 50** Atletiko 10.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

▶ Egunez: Correa
Antziola, 44
☎ 943 551933
▶ Gaeuz: Correa
Antziola, 44
☎ 943 551933

ASTEARTEA

▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
▶ Gaeuz: Tanco
Urnieta, San Juan, 36
☎ 943 550942

ASTEAZKENA

▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
▶ Gaeuz: Irigoien
Elkano, 2
☎ 943 552087s